

aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

EGUNEKO MEZUA MENSAJE DEL DÍA

“Eguneko Mezua” proiektua, 2022/2023 ikasturtean Egape Ikastolan sorturiko proiektu bat da. Proiektu honetan Lehen Hezkuntzako maila guztiek parte hartzen dute, bakoitzak bere neurrian. Helburuak honako hauek dira:

- Irakurketa/idazketa informazio eta entretenimendu iturri gisa balioestea.
- Irakurtzeko gogoia eta interesa sortzea.
- Testu ezberdinekin (asmakizunak, errimak, irudiak...) kontaktuan jartzea.
- Irakurriaren ulermena eta hiztegia zabaltzea.

Horretarako, “Eguneko mezua” idazteko eta apaintzeko, LHko eraikinaren sarreran dagoen arbelezko horma handia erabiltzen da.

Proiektu hau aurrera eramateko egutegi bat prestatzen da ikasturte hasieran txandak antolatzeko. Txandak hamabostero aldatzen direnez, talde bakoitzak noiz parte hartuko duen zehazten da egutegian. Talde bakoitzak erabakitzen du zer idatzi tokatzen zaion epealdian. Gaia aukeratzeko orduan, ikasleen proposamenak eta nahiak hartzen dira kontuan. Amaitzeko, erabakitako gaia erregistratu egiten da beste talde batek errepika ez dezan.


El proyecto “Eguneko Mezua” es un proyecto creado en Egape Ikastola durante el curso 2022/2023. En este proyecto participan todos los cursos de Primaria, cada uno a su nivel. Los objetivos son los siguientes:

- Valorar la lectura/escritura como fuente de información y entretenimiento.*
- Generar ganas e interés por la lectura.*
- Conocer diferentes textos (adivinanzas, rimas, imágenes...).*
- Mejorar la comprensión lectora y el vocabulario.*

Para ello, para escribir y decorar el “mensaje del día” se utiliza el gran muro de pizarra que hay a la entrada del edificio de Primaria.

Para llevar a cabo este proyecto, a principio de curso se elabora un calendario para organizar turnos. Como los turnos cambian cada quince días, en el calendario se establece la fecha de participación de cada grupo. A la hora de elegir el tema se tienen en cuenta las propuestas y deseos del alumnado quienes deciden qué escribir. Para finalizar, el tema decidido se registra para que no lo repita otro grupo.





BERTSOLARITZA

Bertsozale Elkartek ikasgelan bertsolaritza lantzeko aukera ematen die Euskal Herri osoko ikastetxeei. Gure ikastetxean ere “Ni ere bertsolari” egitasmoa martxan dugu azken bi hamarkadetan.

Bereziki Lehen Hezkuntzako 3. zikloari bideratuta badago ere, gure ikastetxean 4., 5. ete 6. mailako ikasleek jasotzen dute saioa ikasturte osoan, astean ordubetez. Bertsozale Elkarteko irakaslea den Unai Gaztelumendi etortzen da bi astez behin ikasgelako dinamika gidatzera; tutorea ere gelan izaten da. Helburu nagusiak ikasleei dagokienez, ondorengoak dira:

Bertsolaritzaren oinarritzko ezagutza izatea eta zaletasuna piztea.

Euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta erabilera bultzatzea ahozotasuna garatuz.

Jendaurreko emanaldi bat gauzatzeko oinarritzko betekizunak ezagutzea.

Bertsolaritzaren bidez, Lehen Hezkuntzako Curriculumean jasota datozen oinarritzko gaitasunak lantzen dira:

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Bertsolaritzak eta euskarak uztarturik jarraituko dute beraz, Egape Ikastolan aurtengo ikasturtean ere.

BERSOLARISMO

Bertsozale Elkartea ofrezte a los centros escolares de toda Euskal Herria la posibilidad de trabajar el bersolarismo en el aula. En nuestro centro tenemos en marcha el proyecto “Ni ere bertsolari” desde hace dos décadas.

Aunque está especialmente enfocado al 3er ciclo de Educación Primaria, en nuestro centro recibe clase durante todo el curso el alumnado de 4º, 5º y 6º, durante una hora a la semana. El profesor de Bertsozale Elkartea, Unai Gaztelumendi, dirige cada dos semanas la dinámica del aula junto con el tutor o la tutora. Los principales objetivos en cuanto al alumnado son:

Tener un conocimiento básico del bersolarismo y despertar la afición.

Reforzar la actitud positiva hacia el euskara e impulsar su uso.

Conocer los requisitos básicos para la realización de una exposición pública.

A través del bersolarismo se trabajan las competencias educativas básicas recogidas en el Currículo de Educación Primaria:

Competencia en comunicación lingüística.

Competencia en cultura humanística y artística.

Competencia para aprender a aprender.

Competencia para la autonomía e iniciativa personal.

Por lo tanto, el bersolarismo y el euskara seguirán unidos en Egape Ikastola.





IKASLEEN PARTE-HARTZEA IKASTOLAN

Gure hezkuntza komunitatean eta gure Heziketa proiektuan ikaslea dugu erdigune. Hori dela eta, DBHn ikasleei ikastolako egunerokoan parte-hartze aktiboa izan dezaten bideak/kanalak zabaltzen dizkiegu.

Honela, hainbat talde osatzen ditugu urtez urte ikasleak haien zaletasun, gustu eta konpromisoen baitan taldekide izateko. Hala nola, “Euslidenren” taldea osatzen dugu eta izenak dioen bezala euskararen aldeko aldarrikapena egiten dute. “Batera gara” taldean hezkidetzak gaiak lantzen dituzte. “Ostadar” taldeak, aldiz, ingurumenarekin konpromisoa aldarrikatzen du. “Elkarbizitza zirkuluak” taldekideen ongizateaz arduratzen da. Eta azkenik, “Ordezkariei taldea” eskolako azpiegiturak ondo mantentzeaz eta ikasleen beharrak antzemateaz arduratzen dira. Bukatzeko, DBH 4. mailako ikasleek ikasbidaia prestatzeko hainbat taldetxo sortzen dituzte.

Talde horiek guztiak arduradun heldu (irakasle, orientatzaile, tutore, zuzendari) baten gidaritzapean martxan dihardute.

Ekarpen politak jasotzen dira eta ikastolak ahal duen neurrian guztiak eskuartean izaten ditu eta erantzun egoki bat ematen saiatzen da. Modu honetan ikasleak inguruarekin herritar konprometitu eta aktiboak izateko bidean hezten ditugu.



PARTICIPACIÓN DEL ALUMNADO EN EL CENTRO

El alumno y la alumna es el eje del Proyecto educativo de nuestra comunidad educativa. Por ello, en la ESO abrimos canales para que el alumnado participe activamente en el día a día de la ikastola.

De esta manera, año tras año formamos diferentes grupos para que el alumnado pueda participar en uno de ellos teniendo en cuenta sus preferencias y compromisos. Por ejemplo, formamos el grupo “Euslidenrak” y como su nombre indica reivindica el euskara. En el grupo “Batera gara” trabajan la coeducación. En “Ostadar”, en cambio, reivindican su compromiso con el medio ambiente. Los “Círculos de convivencia” se ocupan del bienestar de los miembros del grupo. Y por último, la “Comisión de delegados y delegadas” se encarga de mantener bien las infraestructuras escolares y detectar las necesidades de los compañeros y compañeras.

Todos estos grupos funcionan bajo la dirección de un responsable adulto (profesorado, orientadora, tutores-tutoras, directora).

Se recogen aportaciones valiosas y la ikastola intenta dar una respuesta adecuada a todas en la medida de sus posibilidades. De esta manera educamos al alumnado hacia una ciudadanía comprometida y activa con su entorno. Por último, los alumnos y las alumnas de 4º curso forman grupos para preparar el viaje de fin de estudios.



Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

